

JAITSIEREN, IGOEREN, ZEHARKALDIEN ETA MARATOIAREN ARAUDIA

INDARREAN NOIZTIK 2018ko maiatzaren 8tik





Aurkibidea

I KAPITULUA- ARAU NAGUSIAK

1. Art.- Jaitsierak, Igoerak, Zeharkaldiak eta Maratoia.....2

2. Art.- Antolaketa.....2

II KAPITULUA- ONTZIAK

3. Art.—Ontziak.....2

4. Art.- Ontzietako mugak.....2-3

5. Art.- Ontzien eraikuntza.....3

6. Art.- Ontzien kontrola.....3-4

7. Art.- Ontzien numerazioa.....4

8. Art.- Xukaderak.....4

III KAPITULUA- LEHIAKETEN ANTOLAKUNTZA

9. Art.- Distantziak.....4-5

10. Art.- Etapa Ezberdinetako txapelketak.....5

11. Art.- Ofizialak.....5-6

12. Art.- Ofizialen zereginak.....6-8

13. Art.- Gonbidapenak.....8-9

14. Art.- Izenemate Orriak.....9-10

15. Art.-Izenemateen hartzea eta programak.....10

16. Art.- Izenemateen aldaketak eta baliogabetzeak.....10

17. Art.- Proben ordenaren aldaketa.....10

18. Art.- Talde buruen bilera.....10-11

IV KAPITULUA- LEHIAKETA ARAUAK

19. Art.- Irteerak.....11

20. Art.- Irteera Motak.....11-12

21. Art.- Irteera- prozedurak.....12-13

22. Art.- Etenaldiak irteeretan.....13

23. Art.- Lehiaketan markak eta seinalizazioa.....13-14

24. Art.-Ibilbidea.....14

25. Art.- Portea.....14

26. Art.- Ziabogak.....15

27. Art.- Aurreratzeak.....15

19. Art.- Talkak edo kalteak.....15

29. Art.- Kanpoko laguntza eta iraulketak.....15-16

30. Art.- Segurtasun neurriak.....16

31. Art.- Iritsierak... ..16

32. Art.- Kontrolaren amaiera.....16-17

37. Art.- Txapelketa bakoitzeko puntuazioa.....17

34. Art.- Kluben arabeko sailkapena.....17-18

35. Art.- Berdinketak.....18

36. Art.- Deskalifikazio eta zigorrak.....18-20

Amaiera Xedapena.....20



**I KAPITULUA
ARAU NAGUSIAK**

1. Art.- Jaitsierak, Igoerak, Zeharkaldiak eta Maratoia.

1.1. Jaitsierak izendatzen dira ibaian, korrontearen alde ospatzen diren txapelketak. Etapa bat edo batzuk garatzen dira, oztopo edo zailtasun gehiagorik gabe, izaera naturalekoak baino (I. eta II. Maila), denboren neurketak eginez.

1.2. Ibaian eta korrontearen kontra ospatzen direnak, Igoerak izendatzen dira.

1.3. Itsasoan, lakuetan, urtegiatan etab. ospatzen direnak, Zeharkaldiak izendatzen dira.

1.4. Maratoiko lehiaketetan, lehiakideak distantzia bat burutzen du patroia estandar bat jarraitzen ez duen ur bidean. Ur baldintzetara egokitu beharko du lehiakideak eta prest egon ontzia garraiatzeko, horrela erabakiko balitz, bi kanalen artean edo/eta oztopo gaindiezin baten inguruan.

Maratoiko probak distantzia luzekoak eta porteoekin edo porteorik gabe eta motzak porteoekin izan litezke.

1.5. Espezialitate hauek etapa batean edo bat baino gehiagotan ospatu ahal izango dira. Edo jardunaldi batean edo bat baino gehiagotan.

2. Art.- Antolaketa.

Txapelketa guztiek Txapelketa Batzorde batekin kontatu beharko dute, zein Euskadiko Piraguisma Federazioko Araudi Nagusi eta Teknikoan xedatuari jarraiki eratuko den.

Txapelketa bateko antolatzaileak, txapelketa hori F.V.P.-ko Txapelketen Araudi Nagusi eta Teknikoan ezarritako baliabideekin hornitzeko obligazioa izango du.

II KAPITULUA

ONTZIAK

3. Art.- Ontziak.

Ontziak araudiaren arabera izango dira, alegia F.V.P.-ko Txapelketen Araudi Nagusi eta Teknikoan xedatuari jarraiki eratuak.

4. Art.- Ontzietako mugak.

K-1	K-2	K-4	C-1	C-2	C-4	
520	650	1100	520	650	900	Gehieneko luzeraren cm-ak

8	12	30	10	14	30	Pisu minimoaren kg-ak
---	----	----	----	----	----	-----------------------

4.1. Debehatuta dago ontzietan substantzia arrotzak eramatea, lehiakideentzat abantailak ekarriko dituztenak.

4.2. Publizitate material oro, lehiakidearen identifikazioa eragotziko ez duen eta lehiaketaren garapenean eragingo ez duen moduan ezarri beharko da. Araudi Nagusi eta Teknikoak biltzen dituen arauak errespetatuz.

4.3. Ekipoak bere materialaren arduradunak izango dira.

5. Art.- Ontzien eraikuntza.

a) Kayak ontziak:

Eraikuntza material mota guztiak onartzen dira. Kayak ontziko kaskoaren sekzioak eta linea longitudinalak ez dute konkaboak izan behar. Direkzio timoiak baimenduta daude. Timoiko orriaren lodiera gehienez 10mm-koa izango da K-1 eta K-2 ontzien kasuan, timoiaren orriak kayak ontziaren luzerari dagokion hedadura hartzen duenean.

Kayak ontzia modu simetrikoan eraiki beharko da ardatz longitudinala jarraituz.

b) Kanoak:

Eraikuntza material mota guztiak onartzen dira. Kanoako kaskoaren sekzio eta linea longitudinalak ez dute konkaboak izan behar. Kanoa modu simetrikoan eraiki beharko da, bere ardatz longitudinalaren gainean. Ez dira onartzen timoiak, ezta dispositiboak ere, kanoaren noranzkoa bideratzeko. Gila, egongo balitz, zuzena izan beharko litzateke eta kanoaren luzera osoan zehar zabaldu beharko litzateke, kaskoaren azpitik 30 mm baino gehiago ateratzea ezinezkoa izanik.

C-1 erabat zabalik ezarri ahal da eta ezin izango zaio 150cm-tik gorako estaldurarik ezarri. Brankatik eta popatik 75 cm baino gehiagora, poparen gune urrunetik eta popatik dagozkien estalduretako gunerik urrunenera neurtuta. C-2 eredu erabat zabalik ezarri ahal izango da, baina irekiduraren luzera minimoa 295cm-koa izango da. Estaldura desmontagarriak erabili ahal dira, betiere bere neurrietan deskribatutako irekidura minimoak errespetatuz.

6. Art.- Ontzietako kontrola.

6.1. Kayak ontziaren eta kanoa baten luzera neurtu egingo da brankako eta popako muturreko artean. Brankako eta popako babesak, daudenean, neurrietan barne hartu beharko dira. Timoia ez da barne hartuko kayak ontziaren neurketan.

6.2. Debehatuta dago kanoetan eta kayak ontzietan aldaketak egitea, neurketaren ondoren eta txapelketa ospatu aurretik.



6.3. Kayak ontziaren edo kanoaren pisua neurtzen da ontzitik gehiegizko ur kopurua ateratzen denean eta barne hartu ahal izango ditu dispositibo flotagarriak, eserlekuak, oin-aulkiak, direkzio ekipoa eta ponpa, kanpoan geratuz palak, bainera-estalkiak eta kantinplora. Finkatu gabe gai guztiak kenduak izango dira.

6.4. Ontzi kopuru bat, Txapelketa Batzordeko erabakiaren arabera, zorizko moduan hautatua, berriro ontzien kontrolera eramango da, lasterketa amaitu ostean.

6.5. Inolaz ere, palak ezingo dute ontzira finkaturik egon.

6.6. ontzi guztiak, nahikoa flotagarritasun izan behar dute, urez beteta daudenean ere. Ontzi kontrol epaileak flotagarritasun test bat burutzea izango du, ez bada argi ikusten betetzen duela.

6.7. Debehatuta dago ontzietan inolako substantzia arrotzik eranstea; ekintza horrek lehiakideei abantaila desleial bat eman ahal dielako. Debehatuta dago ontzietan kaskoen lubrifikatzaileak erabiltzea.

7. Art.- Ontzien numerazioa.

7.1. Ontziak hondo zurizko plakekin eta zenbaki beltzekin hornitu beharko dira, palista identifikatzeko edo ontzietarako itsasgarriekin, horiek modu egokian eta agerian ezartzea zainduz, ahaztu gabe palistaren bularrean ezarritako dortsala, zeinetan ezinbestean plakako edo itsasgarriko zenbaki berdina azaldu beharko den.

7.2. Plakak atzeko goialdeko ardatz longitudinalaren gainean ezarri beharko dira, kayak ontzietan eta aurrealdean kanoetan.

7.3. Numeratutako plaken edo itsasgarrien formatuak 20cm-ko altuera eta 18cm-ko zabalera izango ditu.

7.4. Plakako edo itsasgarrietako zenbakiak 15 zentimetroko altuera eta 2,5 zentimetroko zabalera izan beharko dute.

7.5. Ontziak, derrigorrez, oholtxoak eramateko

8. Art.- Xukaderak.

8.1. Xukatzeko eskuzko ponpak instalatu ahal dira kayak ontzietan eta kanoetan. Debehatuta dago kaskoaren lerroak etengo dituzten xukatzeko ponpen erabilera.

8.2. Ponpa elektrikoak soilik erabili ahal izango dira, estropada bateko antolatzaileek segurtasun arrazoiengatik eskatzen dutenean.

III KAPITULUA

LEHIAKETEN ANTOLAKUNTZA

9. Art.- Distantziak.



Jaitsieren, Igoeren, Zeharkaldien eta Maratoiaren Araudia

9.1. Kadete kategoriak zeharkatu beharreko distantzia, gehienez 15 kilometrokoa izango da beti; kategoria hau Euskadiko Maratoi Txapelketetan eta Euskadiko Ibaien Kopako probetan partaide izan ahal da, xede guztietarako, K-1, C-1, K-2 eta C-2 ontziekin gizonetzkoak eta K-1 zein K-2 ontziekin emakumezkoak. Kadeteek ezin izango dute parte hartu berehalako goragoko kategorian.

9.2. Maratoi txapelketetarako, ibilbidearen distantziak ondorengoak izango dira:

Senior Gizonetzkoak: Gutxienez 20km,

Senior Emakumezkoak: Gutxienez 15km

Junior Gizonetzkoak: Gutxienez 15km

Junior Emakumezkoak: Gutxienez 15km

Kadete Gizonetzkoak: Gehienez 15km.

Kadete Emakumezkoak Gehienez 15km.

9.3. Maratoian gomendatutako distantzia izango da kategoria bakoitzeko txapeldunak gutxienez bi ordu eta erdiko eta gehienez hiru orduko denbora bat inbertitzeko bidea emango duena.

10. Art.- Etapa ezberdinetako txapelketak.

10.1. Proba bat etapa edo jardunaldi ezberdinetan banatzen denean, proba horretako araudian isladaturiko ordenaren arabera burutuko dira.

10.2. Banakako irteera bda, lehiakideek irteera hartu beharko dute aurreko etapen izandako iritsiera hurrenkera berdina eta denbora tarte berdinak zainduz.

10.3. Talde bat izaten denean, halaber kontuan hartu beharko da aurreko etapako iritsiera hurrenkera, denboren arteko diferentziak erregistratzea zainduz. Denborak metagarriak dira eta garaile aldarrikatuko da ibilbide osoa denbora urrienean garatu duen taldea, antolatzaileek inposatutako balizko penalizazioak aplikatu ondoren. Bigarren eta hurrengo egunetako irteerak, Araudi honetan adierazitako edozein metodoren arabera garatu ahal izango dira.

11. Art.- Ofizialak.

11.1. Txapelketak ikuskatuko dituzte ondorengo Ofizialek:

11.1.1. Epaileak

Epaile Nagusia

Epaile Nagusiaren laguntzailea

Lehiaketako idazkaria



Ibilbide Burua

Irteera epailea

Helmuga epailea

Lizentziak eta uniformetasuna kontrolatzeko epailea

Ontziak kontrolatzeko epailea

Epaile lerrokatzailea

Ibilbideko epailea

Dopin Epailea

11.1.2. Antolatzaileak

Txapelketa Zuzendaria

Txapelketaren antolatzaile teknikoa

Esataria

Segurtasun ofiziala

11.2. Txapelketako agintaritza gorena Txapelketa Batzordeari dagokio.

11.3. Zirkunstantziek ahalbidetzen badute, pertsona batek arestian aipatutako funtzio ezberdinak bere gain hartu ahal izango ditu.

11.4. Baimendu gabeko pertsona bati debekatu egingo zaio txapelketako eremu ofizialetan sartzea, epaile batek edo Txapelketa Batzordeak deitzen diotenean izan ezik.

12. Art.- Ofizialen zereginak.

12.1. Epaile Nagusia: Lehiaketa Batzordearen buru da eta txapelketaren inguruko gaien inguruan hartuko ditu erabakiak, inondik inora araudi honi eta EKF-tzako Araudi Nagusi eta Teknikoari kontra egin gabe. Emaitzen ofizialtasuna bermatuko du horiek argitaratu aurretik. Txapelketa amaitzean, F.V.P.-ko emaitzen Akta elaboratzeaz eta bidaltzeaz arduratuko da.

12.2. Epaile Nagusiaren laguntzailea: Epaile Nagusiarekin elkarlanean arituko da eta lehiaketako egin behar administratiboetaz arduratuko da. Lehiaketan zehar burutu beharreko inprimakiak beteko ditu. Beharrezkoa den kasuetan, Epaile Nagusia ordezkatu du.

12.3. Txapelketa zuzendaria: Lehiaketako zuzendaritza eta prestaketaren arduraduna da. Lasterketak ikuskatu beharko ditu eta hauek programaren arabera eta alferrikako atzerapenik gabe garatzeaz arduratuko da. Ofizial arduradunak informatu beharko ditu, aldizka, lasterketa berri bat abian jarri aurretik. Bestalde,

txapelketako administrazio gaien (programa, zozketak, emaitzak, dokumentazio teknikoa, ontzien kontrola, prentsa, protestak, etab.) inguruko garapen egokiaz arduratuko da.

Era berean, ziurtatu beharko du esatariak lasterketen inguruko beharrezko informazio guztia ematen duela, esaterako irteera-hurrenkera, lehiatzera irteten diren lehiakideen izena, emaitzak.

12.4. Ibilbide Burua: Proban zehar Araudiaren konplimendua zainduko du. Arauak betetzen ez badira, Epaile Nagusiari arau-haustea jakinaraziko. Ibilbide Burua, Ibilbideko epaileak kokatu eta koordinatu beharko ditu, ibilbidea kontrolatu dezaten.

12.5. Irteera Epailea: Probetako irteerarekin lotutako gai guztien inguruan erabakitzen du eta irteera faltsuaren kasuan, erabakiak hartzeko arduradun bakarra izango da. Bere erabakia behin-betikoa eta apela ezina izango da.

Egiaztatu egingo irteera seinalearen funtzionamendu egoerari dagokion egokitasun maila. Eskuragarri dituen baliabideak direla medio, helmuga lerroko epaileekin komunikatu beharko da eta horiek dena prest dagoela jakinarazten diotenean, lehiakideei euren tokiak esleituko dizkie eta Araudiekin bat datorren irteera adieraziko du.

12.6. Helmuga Epaileak: Helmuga lerroa gainditu duten lehiakideen hurrenkera erabakitzen dute. Helmuga lerroan kokatu beharko dute. Lehiakide baten edo gehiagoren hurrenkerari dagokionez ados ez daudenean, eta helmugako argazkirik edo bideorik ez dagoenean, erabakia gehiengo sinplearen arabera hartuko da. Epaile Nagusiaren botoa erabakitzailerak izango da berdinketaren kasuan.

Helmugako pelikula erabilgarri dagoenean, amaiera erabakia beti honekin bat etorri beharko da. Epailearen erabakia behin-betikoa izango da.

12.7. Antolatzaile teknikoa: Estropaden arloko material tekniko elektronikoa guztiaz arduratu beharko da, (irteera-sistema automatikoa, fotofinish sistema eta kronometrajea, markagailua, irradi konexioak, ontzien trafikoa lasterketaren aurretik eta garapenean, etab.). Epaile Nagusiaren eta Txapelketako Zuzendaria babestuko ditu. Emaitzen erregistroaren arduraduna izango da eta sarituen zerrendak osatzeaz. Lehiaketaren gora beheren eta emaitzen berri eman beharko die hedabideei.

12.8. Lizentziak eta uniformetasuna kontrolatzeko epailea: arduratuko da palisten identitatea egiaztatzeaz, horien lehiakide lizentzia indarrean dagoela ziurtatzeaz eta irteera zerrenda ofizialean azaltzen direnak izatea bermatzeaz hala nola txapelketa honetan ordezkatzera datorren Klubeko edo Federazioko uniformetasuna egokia dela egiaztatzeaz. Kontrola pasatzeak, ontziak baimentzen ditu irteera gunera joateko, lehiaketa arauetan ezartzen den bezala, Talde buruen bileran baieztatu delarik.



12.9. Segurtasun ofiziala: Txapelketa Batzordeari beharrezko segurtasun neurrien inguruan aholkua emateko eta horiek behar bezala betetzen direla egiaztatzeko arduraduna izango da.

12.10. Esatari ofiziala: Txapelketa Zuzendariaren instrukzioak jarraituz, proba bakoitzaren irteera, irteteko hurrenkera eta lehiakideen posizioa iragarri beharko ditu. Jadanik proba amaitu denean, emaitzak ezagutzera eman beharko ditu.

12.11. Ontziak kontrolatzeko epailea: Txapelketa Zuzendariarengana joango da proban parte hartzen duten ontziak egiaztatzeko. Horietako batek araudiaren arabera ezarritakoa betetzen ez duenean, mugen arloan, txapelketatik kanporatua izango da.

12.12. Epaile Lerrotzailea: Lerrotzailearen funtzioa izango da alde batetik, ontziak irteera-lerroan ahalik eta eperik laburrenean ezartzea eta. Ontzi guztiak lerrokatuta daudenean, Irteera Epaileari jakinaraziko dio.

12.13. Ibilbideko Epaileak: Lehiaketa eremuan arauak errespetatzen direla ziurtatzeko ardura izango dute. Ahalik eta kokapen egokienean egongo direlarik. Ziaboga, porteo (egongo balitz) edo ibilbideko epaile izan litezkeelarik. Edozein arau hauste, Ibilbide Buruari ahalik eta azkarren jakinarazi beharko zaio.

12.14. Dopin epailea: Dopinaren mediku ofizial arduradunari lagundu beharko dio antidopin kontrolaren prozesu osoan, kontrol hau gainditzeko esleitutako palistak izendatuak izan diren unetik gehienez hogeita hamar minutuko epean azterketa egiteko aurkeztu direla bermatuz.

13. Art.- Gonbidapenak eta lehiaketa programa.

13.1. Gonbidapenak ondorengo informazioarekin hornitu beharko dira eta klubentzat eskuragarri jarri beharko dira, gutxienez ospakizun data baino 15 egun lehenago.:

Txapelketa mota.

Txapelketa ospatuko den tokia, data eta ordua.

Inskripziotarako hasiera eta amaiera ordua.

Ibilbidearen krokisa, plano edo mapa, dagozkion seinaleztapenekin.

Ibaiaren edo zeharkaldiaren ezaugarriak eta kasu bakoitzerako ontzi gomendagarri mota.

Zeharkatu beharreko distantzia kategorien arabera.

Barne hartutako kategoriak.

Eskatzen diren diru-laguntza zehatzak, hala badagokio.

Antolatzailearen helbidea eta telefonoa.

Partaideentzat interesgarriak izan daitezkeen bestelako datuak.

13.2. Gutxienez, lehiaketa hasi baina 2 ordu lehenago, behin betiko programak argitaraturik egon beharko du, honako informazioarekin:

- a. Ibilbidearen eta beraren seinalizazioaren inguruko informazio zehatza.
- b. Irteera ordua
- c. Helmuga lerroa
- d. Lehiakideen bularrekoak
- e. Ontzi kontrol mota.

13.3. Gonbidapenen eta publizitatearen erredakzioa erkidegoko hizkuntza ofizialekin egin beharko da, eta ingelesez, nazioarteko proba bat izanez gero, antolatzaileak ontzat ematen duen bestelako hizkuntza orori aukera emanez.

14. Art.- Izenemate-orriak.

14.1. Txapelketa bateko inskripzioak ezin izango ditu formalizatu partaideei dagokien erakundea ez den beste organismo batek, Gonbidapenean emandako adierazpenak kontuan hartuta.

14.2. Horietan adieraziko dira ondorengo datuak:

- Federazio edo Klub partaidea.
- Palista bakoitzaren izena, abizenak eta sexua.
- Bere klubaren edo bere kasuan Lurralde Federazioaren akreditazioarekin kontatzen duen Talde Buruaren izena eta abizenak. 18 urtetik gorako adina eta F.V.P.-ko indarrean dagoen lizentziaren jabetza egiaztatu beharko dira
- Palista bakoitzaren N.A.N zenbakia.
- Palista bakoitzaren kategoria.
- Erabiliko duen ontzi mota.
- Dagokion txapelketan ordezkatzan duten Klubeko edo Federazioko jantzien kolorea.

14.3. Talde bakoitzaren inskripzio Nominala, antolatzaileak eskuragarri izan beharko du txapelketaren astelehenetik, eta gutxienez txapelketa hasi aurretik.

14.4. Klub bakoitzeko Talde Buruak txapelketaren eremu berean egin ahal izango ditu arestian F.V.P.-ra igorritako aurretiko inskripzio “nominalen” inguruko ordezkapenak eta ezeztapenak, gutxienez txapelketa abian jarri baino bi ordu lehenago. Talde Buruak ziurtatuko du bere sinadurarekin, Behin-betiko

Inskripzioko partaideak eta irteera hartuko dutenak berdinak direla, eta debekatuta dago ondoren ezeztapenak edo ordezkapenak egitea.

- 14.5. Epaile Nagusiak egiaztatu ahal izango du edozein klubekin, Behin-betiko Inskripzioarekin lotutako palistak eta parte hartzen dutenak berdinak direla. Arau-haustek, adostutako diru-laguntzarekiko zigor ekonomikoa hala nola diziplinazko zigorra ekarriko ditu.

15.Art.- Izenemateen hartzea eta programak

15.1. Lehiaketa bakoitzerako ezarritako datarako egon beharko dute Euskal Kanoe Federakuntzan izenemateek, ezarritako data eta ordua pasa ondoren, iritsitako izenemateak ez onartzea legokelarik.

15.2. Antolatzaileak, bidalitako izenemateen jaso izanaren egiaztageria bidaliko duelarik.

15.3. Lehiaketa Batzordea eratzen den unerako, behin betiko programa eskuragarri izango dute, partehartzaileen izenak emanez hala nola, zozketako emaitzak ere.

16. Art.- Izenemateen aldaketak eta baliogabetzeak.

16.1 Antolatzaileak ezarritako ordutegian egin beharko dira izenemateen aldaketak eta Talde Buruen bilera baino lehen, Epaile Nagusiari idatziz entregatu.

16.2. Kirolari baten izenematearen baliogabetzea behin betikoa da eta berriro, proba horretarako, baliogabeturiko kirolari baten izenematea burutzea, debekaturik dago.

16.3. Titular gisa izena emandako kirolari batek, ontzi eta distantzia batean edo bate baino gehiagotan, ezin izango du, inondik inora, txapelketa bereko beste ontzi batean erreserba izan.

16.4. Kirolari oro, bere izenemateak klub edo Federakuntza batek baieztatua izan dena, derrigorturik dago proban parte hartzera.

16.5. Ontzi batek ez badu irteera burutzen eta kirolariak/ek ez badu/te baliozko arrazoi bat, Lehiaketa Batzordeak onartua izan dena, txapelketa guztirako izango da/dira kanporatua/k.

17. Art.- Proben ordenaren aldaketa

Gonbidapenean adierazitako proben ordena mantentzeko ardura, antolatzaileek izango dute, hala nola, proben arteko denbora tarteak, lehiaketa programan adieraziak izan diren modura. Lehiaketa Batzordeak adosturiko aldaketak bakarrik egongo dira burutzea.

18.Art.- Talde Buruen bilera



Jaitsieren, Igoeren, Zeharkaldien eta Maratoiaren Araudia

Talde buruen bilera, gutxienez, txapelketa hasi baino ordu bat lehenago ospatuko da. Bileran, antolatzaileak, ibilbidea deskribatuko du eta txapelketari eragiten dioten edozein gai. Epaile nagusiak, txapelketa programa azalduko du eta egindako edozein aldaketaren berri emango du.

IV KAPITULUA

LEHIAKETA ARAUAK

19. Art.- Irteerak.

19.1. Partehartzaileek, programak adierazitako ordutegian egon beharko dute irteera lerroan. Irteera, falta diren kirolariak kontutan hartu gabe emango da.

19.2. Kategorien ordena beheranzkoa izango da edo azkarrenetik geldoenera, Lehiaketa batzordeak adosturikoaren arabera.

20. Art.- Irteera motak

20.1. Etapa bakarreko lehiaketetan, irteera mota honakoetako bat izango da eta dagokion lehiaketako araudi eta programan etorriko da definiturik:

a) Irteera geldia

20.1.1. Ontzien irteera kokapena, ontzien brankek, irteera markatzen duten buia edo banderek ezarritako lerroa ezin dute gainditu. Posible den heinean, kategoria berdineko ontziek irteera bat osatu behar dute, eta ezin bada, espazio faltagatik edo ur zein baldintza klimatologikoengatik, aldibereko irteera burutuko litzateke.

b) Irteera- Parrilla.

20.1.2. Ontziak ilara ezberdinetan lerrokatuta ezarriko dira, kategorien arabera edo zozketa bidez. Partaide guztiek aldibereko irteera bat egiten ez dutenean, irteera bat baino gehiago agindu daitezke, kategorien arabera, taldeen arabera edota banaka erlojuaren kontra; azken kasu honetan, irteeraren hurrenkera zozketa bidez erabaki beharko da Lehiaketak talde nazionalak edo/eta autonomikoak izanez gero, klubekoekiko lehentasuna izango dute.

c) “Sella erako” irteera.

20.1.3. Ontziak ur-bazterrean ezarriko dira, kategorien eta modalitateen araberrako zozketa baten ondorioz ezarritako hurrenkera jarraituz, azkarrenetatik hasita, Txapelketa Batzordeak xedatuaren arabera.

Ontzien kopurua oso ugaria izaten ez bada, epaileen irizpideari jarraiki, zozketa klubaren araberrakoa izan ahal da, kategorien araberrakoa izan beharrean.

d) Mugimenduzko irteera.



20.1.4. Korrontearen intentsitateak irteera geldia eragozten duenean, mugimenduzko irteera-sistema erabili ahal izango da, ontziak lerrorantz bideratzea ahalbidetuz, irteera seinalea adieraztean lerroa gurutzatzeko moduan.

e) Tartekaturiko irteerak

20.1.5. Aldi bateko irteera ematea ezinezkoa edo zitala izanez gero, tartekaturiko irteerak ematea egongo da. Ordena, zozketa bidez ezarriko da. Partehartzaileen zerrenda, hala nola, irteera ordutegia, gutxienez, lehiaketa hasi baina hiru ordu lehenago argitaratuko da. Taldekako tartekaturiko irteeren aukera ere bada.

Kasu guztietan, parte hartzaileek, programaturiko irteera ordutegia baina hamar minutu lehenago egon beharko dute uretan eta Sella moduko irteeran, gainera, proba hasi baina hama minutu lehenago, abisu bat jasoko dute.

20.2. Etapa ugariko lehiaketa:

Lehiaketa bat, etapa ugaritan jokutzen denean, jardunaldi bereko bigarren eta gainontzeko etapek, antolatzaileak horrela ezartzen badu, banaka edo taldeka jokatuko dira eta talde buru bileran ohartaraziko du.

Banaka burutuko bada, aurreko etapako ordenaren arabera eta denbora tarte berdinekin emango da irteera.

Taldeka izango balitz, aurreko etapako denborak izango dira kontutan, eta diferentziak grabatuak.

Denborak gehitu egingo dira eta irabazlea, ibilbidea burutzeko, denbora gutxien behar izan duen lehiakide edo taldea izango da, penalizazioak egonez gero, kontutan izanda.

Arau honetan aipaturiko edozein metodo erabili liteke etapa ugariko lehiaketetako irteerarako.

Art.21.-Irteeren prozedurak:

Irteera ezberdinen prozedurak honakoak dira:

21.1. a) **Irteera geldiak eta Irteera- parrilla:** behin ontziak lerrokaturik, Irteera Epailleak irteera emango du hitz hauekin: Prest, Ya. Irteera prozesuan, Ya hitzaren aurretik, estropada eremua zeharkatzen duten ontziek **lehenengo abisu** bat jasoko dute, **30 segundoko** zigorra suposatuko diena. Jarrera berdinarekin jarraituz gero, **bigarren abisu** bat jasoko dute, **deskalifikazioa** suposatuko duena eta irteera eremua utzi beharko du berehala.

21.2. b) **Sella-erako irteera:** Lehiakideak irteera lerroan kokatuko dira. Irteera Epailleak, "Prest, Ya" hitzen bitartez emango du irteera. Irteera eman aurretik,

lehiakidea edo lehiakideak korrika hasten badira, **30 segundotako zigorra** jasoko du, jarraituz gero, deskalifikatua izango da eta lehiaketa eremua utzi beharko du berehala.

21.3. c) **Mugimenduzko irteera:** irteera lerroa baino lehen lerrokatutako dira eta irteera lerroa baino desplazatutako dira. Irteera epaileak, irteera lerroa ahalik eta zuzenena izaten eta lehiakide batek besteekiko, irteera dela eta, abantailik ez duela jasango bermatu beharko du. Irteera epaileak egoki deritzonean, lerroan eta noraezean aurreratzen utziko die. Irteera lerroa baino hama metro lehenago “Prest, Ya” hitzen bitartez emango da irteera. Epaileen aginduak jarraitzen ez dituen ontzi orok, berehalako **30 segundotako zigorra** jasoko du. Jasandako abantaila, bidegabeagoa izango balitz, deskalifikazioa ekar dezake.

21.4. d) **Tartekaturiko irteerak:** Lehiakideei alde aurretik, irteerarako ezarritako ordenean deituko zaie. Ahal den neurrian, ezarritako denbora baino, bost minutu, bi minutu eta minutu bat lehenago abisatuko zaie. Irteera epaileak, lehiakidea edo taldea geldik eta lerrokatutako izaten ziurtatu beharko du eta “Prest, Ya” formula bitartez emango du irteera. Epaileen aginduak jarraitzen ez dituen lehiakide orok, berehalako 30 segundotako zigorra jasoko du. Jasandako abantaila, bidegabeagoa izango balitz, deskalifikazioa ekar dezake.

21.5. Arau hauen arabera ezarritako zigor oro, Talde Buruari jakinarazi behar zaio eta ahal denean, eta ahalik eta denbora tarte txikienean, lehiakideari.

22. Art.- Etenaldiak Irteeretan.

22.1. Arbitroak posible du proba bateko irteera zuzena eteteko, justifikatutako arrazoi bat izanez gero.

22.2. Irteera epaileak aginduko du partaide guztiak berehala itzultzeko, irteera berriaren adierazpena eginez.

22.3. Lehiakideek berehala utzi beharko diote palaz haizatzeari, instrukzio berrien zain geratuz.

22.4. Proba nulutzat eman ondorena balio gabetzat hartzen bada, ezinezkoa izango da talde baten osaketan aldaketak egitea, irteera berria emateko.

23. Art.-Lehiaketan markak eta seinalizazioak.

23.1. Irteera lerroa, bi buiak gorriz, bi bandera gorriz edo bien konbinaketa bidez egongo da markaturik.

23.2. Portetako ontziratze eta lehorratze guneak, diagonaliki banaturiko, bandera erdia gorriz eta beste erdia horiz, egongo dira seinalaturik.

23.3. Ibilbide seinalatzeko eta giroak zein beste edozein norabide aldaketarako, buia gorri edo horiak erabiliko dira. Buia gorriak, ontziaren ezkerretara uzten pasako dira. Buia horiak berriz, ontziaren eskuinaldean utziko dira.

23.4. Bandera horiak, maratoiko lehiaketa batean, lehiakide batentzako penalizazioa adieraziko du.

24. Art.-Ibilbidea.

24.1. Estropada eremua derrigorrez txapelketa hasi aurretik gutxienez bi ordu lehenago muntatuta egon beharko da.

24.2. Saihestu ezin izan diren pasabide arriskutsuak seinalatzatuko dira.

24.3. Sakontasun urriko eremuan, baimenduta dago ontzitik ateratzea eta piragua ibaiaren baldintzak hobeak izaten diren eremuan ezartzea.

24.4. Ibilbidea ezin izango da manipulatu, lehiakide baten aldeko edo kalterako ekintza bat egiteko.

25. Art.-Porteoa

25.1. Derrigorrezko edo aukeran dagoen porteoa burutzeko tokietan, porteatuak izango diren ibaiaren guneak lehorreratze eta ontziratze guneen hasiera eta amaiera puntuak dagokien banderekin argi seinalatu beharko dira.

25.2. ontzia eskuz porteatu behar denean, lehiakideek ezingo dute kanpoko laguntzarik jaso, salbuespen, 29.artikuluko kanpo laguntzari dagokion kontutan izanik.

25.3. lurreratze puntuaren amaiera eta ontziratze puntuaren hasiera, porteoko eremuetatik kanpo dago.

25.4. Gutxienez, bi K-2 ontzik aldi berean porteoa burutzeko haina espazio behar du egon.

25.5. Sakonera gutxiko uretan, baimendua dago lurreratzea eta ontzia arrastaka eramatea edo ur sakonagotara porteatzea.

25.6. Seinalaturiko porteoa den beste ezberdin bat burutzen duen lehiakideak, ezingo du inolaz ere, inolako abantailik izan.

25.7. Distantzia luzeko maratoietan, bi eremu argi banandurik eta beraien artean paraleloak egon beharko dute, horietako bat hornidurarako izango delarik. Uretatik urrunen dagoena.

26. Art.- Ziabogak.

26.1. Ziabogak ibilbide aldaketak dira eta banderadun edo bandera gabeko buia bat edo ugariz seinalatuko dira.

26.2. 23. Señalizazio atalean deskribatzen den moduan, giroa, buien edo/eta banderen kolorearen arabera seinalatuko da.

27. Art.- Aurreratzeak.

27.1. Kanoa batek edo kayak batek probako beste kanoa edo kayak bati aurrea hartzen donean, ontziak obligazioa izango du harrapatu duen ontzia inola ere ez oztopatzeko.

27.2. Era berean, aurretik ezarritako ontziak ezin izango du ibilbidea aldatu, aurrea hartu dion ontziari kaltea eragiteko asmoz.

28. Art.- Talkak edo kalteak.

Beste batekin kolisioa egiten duen lehiakide oro, edota beste lehiakide baten kanoan, kayak ontzian edo palan kalteak eragiten dituena, kanporatua izan ahal da.

29. Art.- Kanpoko laguntza eta iraulketak.

29.1. Lehiakide batek ertzean laguntza jasotzea izango du, beti ere beste aurkariei eragiten ez badie eta abantailik suposatzen ez badio. Laguntza oro ertzean burutu behar da, segurtasun arrazoiengatik izan ezik. Laguntza, lehen sorospenak, janari hornidura, edaria, arropa, material akatsduna, palak barne eta konponketetan laguntza.

29.2. Ez dago baimendurik ontzi aldaketa edo ordezkapena. Ez eta talde bereko kideen artean.

29.3. Lehiakide batek ezin izango du ibilbidean zehar laguntzarik edo babesik jaso, txapelketan partaide izaten ez diren beste kanoa edo kayak ontzian, edota bestelako ontzi mota ororen aldetik.

29.4. Ontzi baten iraulketak ez du bere kanporaketa eragingo eta txapelketarekin aurrera jarraitu ahal izango du. Iraultkaren kasuan, lehiakideak laguntza jaso ahal izango du, ontzia xukatzeke eta palaz eginiko haizatzearen posizioa berreskuratzeke, baina ez txapelketaren ibilbidean aurrerapena edo aurrerapausoa ekarriko dion laguntzarik.

29.5. Kirolari paracanoen batek laguntza jaso ahal izango du portean, Txapelketa Batzordearen aurretiazko baimena dela medio, aldeztu aurretik ezarritako laguntzaileen bitartez, baina honek ez du inolako abantailik suposatuko. Ontzitik

altxatu beharko du edo altxatua beharko du izan, laguntzaileek ontzia garraiatu dezaten eta porteoko gunetik aurrera jo beharko du, ontziratze guneraino bere kabuz iritsiz.

30.Art.- Segurtasun Neurriak

30.1.derrigorrezkoa da, salbamendu jaka homologatua erabiltzea, kadeteentzako eta beheragoko kategorientzako eta gomendagarria gainontzeko kategoriakoentzako.

30.2. Ontzi guztiek flotagarritasun neurri nahikoak behar dituzte izan, ontziaren eraikuntzan edo ontzian fijaturik, ontzia urez beterik gero, ur gainean mantentzeko. Ontzien kontrolaz arduratzen diren epaileek, behin begizko inspektzioa burututa, ontziaren flotagarritasuna bermatzeko test bat burutzea izango dute.

Antolatzaileek, segurtasun neurriengatik, flotagarritasun zein segurtasun neurri gehiago eskatzea izango dute. Eskakizuna horiek, izenemate dokumentuan isladatuko dira.

Eskakizun hauek betetzen ez dituzten partehartzaileei, **irteera ukatuko** zaie eta irteera hartuz gero, **deskalifikatuak** izango dira.

Partehartzaileek beraien arriskupean parte hartzen dute. Ez antolatzaileak, ez eta EKF-tza ez dira, lehiaketan gertaturiko istripuetako materialen kalteen erantzule izango.

Ibai eta maratoietako lehiaketek, partehartzaileek egoera arriskutsuetara eraman ditzakete. Derrigorrezkoa da, arrisku egoeran dagoenari partehartzaile orok, ahal duen neurrian laguntza eskaintzea. Honekin ez betetzeak, **deskalifikazioa** eragin dezake.

31. Art. Iritsierak.

31.1. Helmuga lerroa gainditu egin dela esaten da kanoaren edo kayak ontziaren brankak, lehiakidea barruan daraman bitartean, bandera edo buia gorri bien arteko lerroa zeharkatu dutenean.

31.2. Bi ontziek edo gehiagok helmuga lerroa aldi berean zeharkatzen dutenean, sailkapen puntuazio berdina esleituko zaie.

32. Art.- Kontrolaren amaiera.

32.1. Kontrola amaitzeko gehieneko denbora ondorengo moduan erabakiko da:



Jaitsieren, Igoeren, Zeharkaldien eta Maratoiaren Araudia

Probako 10 kilometro bakoitzeko 15 minutu kontabilizatuko dira. Minutuen batura osoak kontrolaren amaierako kategoria/modalitate bakoitzeko gehieneko denbora osoaren berri emango du, lehenengo postua abiapuntutzat hartuta.

Adibidea: 40 kilometroko luzerako proba bati ondorengo kontrolaren amaierako gehieneko denbora dagokio:

$$\frac{40 \times 15}{10} = 60 \text{ minutu}$$

33. Art.- Txapelketa bakoitzeko puntuazioa.

33.1. Txapelketa osatzen duten probetako bakoitzean, soilik kontrolaren amaierako denboraren barruan helmugara heltzen diren lehenengo hemezortzi ontziek puntuatuko dute, eta horietako bakoitzari ondorengo puntuak esleituko zaizkio:

SAILKAPENA	PUNTUAK
1	33
2	27
3	21
4	15
5	14
6	13
7	12
8	11
9	10
10	9
11	8
12	7
13	6
14	5
15	4
16	3
17	2
18	1

33.2. Puntuazioaren xedeetarako, kategoria eta modalitate bakoitzean, gutxienez bi klub ezberdinetako hiru ontzi atera beharko dira lehiatzera, eta puntuazioa eskuratuko dute kontrolaren amaierako denboraren barruan helmugara iristen diren ontzi guztiek.

33.3. Postu bat izango dute, baina ez dute puntuaziorik eskuratuko, txapelketa bateko probetako edozeinetan lehenengo hemezortzi ontziren artean klub bereko ontzi bat baino gehiago partaide izaten direnean, salbuespena izanik maratoiko probak, zeinetan hiru ontzira arteko kopuruak puntuatu ahal izango duen.

34. Art.- Kluben arabeko sailkapena.



Jaitsieren, Igoeren, Zeharkaldien eta Maratoiaren Araudia

34.1. Klub bateko puntuazio osoa, txapelketetako bakoitzean, bertako ontziek eskuratutako banakako puntuazio guztien batura egitean eskuratuko da.

34.2. Maratoiko txapelketetan, klub baten puntuazioa eskuratuko da kategorია eta modalitate bakoitzean bertako hiru ontzi onenek lortutako banakako puntuazio guztien batura egitean.

34.3. Bi klubek edo gehiagok puntu kopuru berdina eskuratu dutenean, berdinketaren urraketa Araudi honetako 25. artikuluan xedatuari jarraiki ebatziko da.

35. Art.- Berdinketak.

Txapelketa batean:

35.1. Bi klubek edo gehiagok puntu kopuru berdina eskuratzen dutenean, berdinketaren urraketa Gizonezkoak Senior K-1 kategoriako sailkapen onenaren arabera erabakiko da eta berdinketa mantentzen denean, ondorengo hurrenkera jarraituko da:

35.2. Gizonezkoak Sub-23, Gizonezkoak Junior K-1, Gizonezkoak Senior C-1, Gizonezkoak Sub-23 C-1, Gizonezkoak Junior C-1, Emakumezkoak Senior K-1, Emakumezkoak Sub-23 K-1, Emakumezkoak Junior K-1, hurrenkera hau jarraitu behar izanik bi tripulatazailerik daramatzaten ontziekin eta jarraian lau tripulatazailerik daramatzatenekin. Jarraian, berdinketa urratuko da Kadete kategoriarekin, beste kategorietarako adierazitako hurrenkera berdina jarraituz.

35.3. Txapelketa batek proba batean, berdinketako partaideei puntuazio eta sailkapen berdinak esleituko zaizkie.

Art.36.- Deskalifikazioak eta zigorrak

36.1. Edozein lehiakide, araudia errespetatu gabe, lehiatzen saiatuz gero, arauak hautsi edo araudia gutxiesten badu, lehiaketa zigortua edo deskalifikatua izango da.

36.2. Ibilbidea egoki ez jarraitzea.

Lehiakide batek, ibilbidea jarraitzerakoan huts egiten badu (adibidez, ziaboga buia bati salto eginez) estropadako araudia hautsi duela kontutan hartuko da eta zigor bat izango du.

Lehiaketako epaileak, horrekin abantaila txiki bat eskuratu duela uste badu, **15 segundotako denbora** penalizazioa jasoko du.

Lehiakideak, abantaila haundia izan badu, **deskalifikatua** izango da.

Talka baten ondorioz, buia bat saltatuz gero, gertakaria ikertua izango da eta talka eragin zuen ontzia hala badagokio, deskalifikatua izango da. Honene ondorioz, buia saltatu duen lehiakidea ez da zigortua izango.

Aurreratze maniobra bat zailtzeko asmoz, ibilbidearen aldaketa burutuz gero, faltatzat hartuko da eta zigor bat ekarriko du, aurreratzen dagoen ontziari desabantaila bat eragiten bait dio.

36.3. talkak eta kalteak:

Epaileak, talka baten erantzuleztat jotzen duen edozein lehiakidek edo beste lehiakide baten ontzi edo pala kaltetzen duenak, edo beharrik gabe, ibilbidetik urruntzen duenak, zigorra jasoko du.

Gertakariaren ondorioz, beste lehiakideei desabantaila txikiago bat jasan baldin badute, **30 segundotako denbora** zigorra jasoko du, ekintzaren arduraduna izan den lehiakideak.

Gertakariak, beste lehiakideei desabantaila nabarmenagoa eragin diola aintzakotzat hartzen bada, deskalifikazioarekin zigortuko ad.

36.4. Ontzien eraikitze edo mugen arau-hausteak:

Lehiakide batek, proba bat burutu ondoren, ontziaren ikuskaritzaren ondoren, EKF-tzak ezarritako betekizunak betetzen ez dituela erabakitzen bada, probatik deskalifikatua izango da.

36.5. kategoria ezberdinetako ontzien arteko estelan nabigatzea:

Maratoiko lehiaketetan (gainontzeakoak at uzten eta maratoi erdiak), debekaturik dago, kategoria ezberdinetako bi ontziren arteko estelan nabigatzea. Estropada araudiaren urratzea da eta zigorra Dakar. Lehiakide batik, estelan nabigatzen ikusiz gero, lehenengo abisu bat jasango du, eta **30 segundotako** zigorra. Lehiakideak bigarren abisua jasoz gero, edo abantaila handia jasan badu, estropadatik **deskalifikatua** izango da.

36.6. Denbora zigorrak, ibilbideko epaileak ezartzen ditu eta ezin dira apelatu.

36.7. Denbora zigorrak, denbora geldialdi baten bidez burutuko dira, portean horretarako ezarritako eremu batean eta ibilbide epaileak ikuskatuak izango dira. Edo lehiakideen amaierako denborari gehituak izango dira, ez bada, denbora geldialdirik burutzen.

36.8. Epaille Nagusiak, berehala eta idatziz baieztatu beharko du edozein deskalifikazio, berau eragin duten arrazoiak azalduz. Talde Buruak txosten horren kopia bat jaso behar du, non, hartze ordu zehatzak agertu behar duen.

36.9. Talde Buruak ez badu txostenaren kopiarik jasotzen, deskalifikazioa ez da baliogabetzen.



Jaitsieren, Igoeren, Zeharkaldien eta Maratoiaren Araudia

36.10. Epaile batek, partehartzaile bat ikusten badu, edari poltsa edo horniduratik datorren bestelako zaborrik uretara botatzen, 30 segundotako zigorra jasoko du. Erabaki hau, ibilbideko epaileak baieztatuko du eta ez du apelaziorik

Amaiera Xedapena.

Araudi honetan aurreikusi gabeko zirkunstantzia guztiak Euskadiko Piraguismo Federazioko Araudi Nagusi eta Teknikoaren eraginpean ezarri beharko dira.

Araudi honek gertakariren bat argitzeko bidea emango ez balu, R.F.E.P.-ko eta F.I.C.-ko araudiak aplikatuko lirateke.

Araudi hau indarrean jarriko da Eusko Jaurlaritzako Kultura, Gazteria eta Kiroletako Sailak ontzat eman duela jakinarazten duen datarekiko hurrengo egunetik aurrera.